

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko urtarrilaren 16tik 22rako astea.**

Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala 2021/01/23

- **XEDAPEN OROKORRAK. – LEHENDAKARITZA.** - 4/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. **365 xedapena - 4 or.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Alduzkari Ofiziala 2021/01/19

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. – Lan-hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 4koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten aseguru, berraseguru eta mutualitateen sektorerako Estatuko hitzarmen kolektibo orokorraren aurreraeragina luzatzeko akordioa. **2021-779 xedapena - 2 or.**

Arabako Aldizkari Ofiziala 2021/01/20

- Arabako erainkuntza eta lan publikoak sektorearentzako 2021eko urterako lan egutegia. **81 xedapena - 3 or.**
- Arabako zurgintzako industrien sektorearentzako 2021eko lan egutegia. **82 xedapena - 3 or.**
- Arabako zurgintzaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia luzatzeko akordioa. **84 xedapena - 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/01/16

- **OGASUN MINISTERIOA. – Antolamendua.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 13koa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren Presidentetzarena, Zergadun Handien Ordezkaritza Zentralaren egitura organikoa ezartzen duena. **2021-671 xedapena - 24 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Antolamendua.** - ISM/18/2021 Agindua, urtarrilaren 14koa, Inklusioaren, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioaren Kutxa ordaintzaileak sortzen dituen. **2021-673 xedapena - 3 or.**

2021/01/18

- **OGASUN MINISTERIOA. – Antolamendua.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 13koa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren Presidentetzarena, Zerga Informatikako Arloaren antolamenduari eta funtzioei buruzkoa. **2021-710 xedapena - 4 or.**

2021/01/19

- **OGASUN MINISTERIOA. - Tributuak. Kudeaketa informatizatua.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 13koa, Ogasuneko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez jarraibideak ematen diren kudeaketa informatikorako eredu berri bat ezartzeko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboetan eta Tributuen Zuzendaritza Nagusian, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren laguntzarekin, eta informazioa trukatzearen alorreko lankidetzaren bidez egonkorrak arautzen diren. **2021-755 xedapena - 11 or.**

2021/01/20

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** - 1/2021 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 19koa, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak gizarte- eta ekonomia-zaingarritasuneko egoeretatik babestekoa. **2021-793 xedapena - 22 or.**

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. –**

- **Esne-sektorea.** - 24/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, honako errege dekretu hauek aldatzen dituena: 319/2015 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, behi-, ardi- eta ahuntz-esnearen zein behi-, ardi- eta ahuntz-esnekien lehen erosle eta ekoizleek egin beharreko aitortpenen ingurukoa, eta 153/2016 Errege Dekretua, apirilaren 15koa, ontziratutako behi-esne likidoaren fabrikatzaileek egin beharreko aitortpenei buruzkoa. **2021-794 xedapena - 11 or.**
- **Animalien osasuna.** - APA/19/2021 Agindua, urtarrilaren 18koa, hegazti gripearen aurkako babes-neurri espezifikoak ezartzen dituen uztailaren 27ko APA/2442/2006 Agindua aldatzen duena. **2021-795 xedapena - 36 or.**

- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. – Gailu elektriko eta elektronikoak. Hondakinak.** - 27/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, honako errege dekretu hauek aldatzen dituena: 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pila eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, eta 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa. **2021-796 xedapena - 51 or.**

2021/01/21

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.** –APA/21/2021 Agindua, urtarrilaren 19koa, arrantzaren alorreko zenbait agindu eta Kanpoko uretan aisialdiko itsas arrantza arautzen duen martxoaren 11ko 347/2011 Errege Dekretuaren I. eranskina aldatzen dituena. **202021-838 xedapena - 10 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/01/18

- **SEGURTASUN SAILA.** - HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2020ko abenduaren 4koa, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen agindua. **200 xedapena - 1 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2020/01/20

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretua, urtarrilaren 12koa. Onestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan 2021ean aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak. **122 xedapena - 4 or.**
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 714/2020 Erabakia, abenduaren 29koa. Onespena ematea AP-1 autobideko erabiltzaileek VIASari 2021ean ordaindu beharreko bidesariaren zenbatekoari, euro/km-tan adierazitako moneta magnitudetan. **93 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/01/20

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2021 FORU-DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua. **31 xedapena - 6 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/01/21

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** -
 - Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 13koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako Foru Dekretu-Arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 11/2020 Foru Dekretu-Araua, 2020ko abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa. **243 xedapena - 1 or.**
 - Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 13koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako Foru Dekretu-Arau hau baliokotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 12/2020 Foru Dekretu-Araua, 2020ko abenduaren 22koa, 2021. urterako berandutze interesa, AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeko kanona eta zerga arloko eguneratze koefiziente batzuk zehazten dituen. **245 xedapena 1 or.**

• **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. –**

- 1/2021 Foru Dekretu-Araua, urtarrilaren 19koa, Kontseiluaren 2016/1164/EB Zuzentaraua hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoei dagokienez aldatzen duen maiatzaren 29ko 2017/952/EB Zuzentaruaren transposizioari buruzkoa. **300 xedapena – 13 or.**
- 1/2021 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, lan etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura 2021ean aplikatuko zaizkien atxikipen portzentajeak onartzen dituen. **301 xedapena – 3 or.**
- 15/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 14koa, zeinaren bidez onesten baita makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko zergan 2020ko laugarren hiruhilekoagatik egin beharreko likidazioaren kuota finkoek izango duten hobaria. **230 xedapena – 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/01/21

- **GOMENDIOAK. – Kontseilua. - 2021/C 24/01.** - Kontseiluaren gomendioa, antigenoen proba azkarrak erabiltzeko eta baliozkotzeko esparru komunari eta EBn COVID-19aren diagnostiko-proben emaitzak elkarri onartzeari buruzkoa. **5 págs.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO